

# Miaxiria



aranoko aldizkaria • 2022ko abendua



## Arano beti gogoan



Emakume kirolariak - Beti Arano gogoan...  
Aranoko Jubiloteka txokotik - Sendabelarrak  
Minazeraka kontu ta komeri... minazeraka ipuin...  
Pantailak euskaraz - Eta gehiago...

zenbaki  
honetan

Gurekin harremanetan jartzeko:  
[laga@iparmank.eus](mailto:laga@iparmank.eus)

Diseinu eta maketazioa:  
[astidiseinua.com](http://astidiseinua.com)

Testuak: Ainhoa Ansa, Arantxa Ansa, Aranoko euskara zerbitzua, Maider Ansa, Markel Oiartzabal, Olatz Zugasti, Haritz Ezeiza eta Unai Muñoz.

Argazkiak: Ainhoa Ansa, Aritz Legarreta, Aurora Perurena, Ezkerren Bordako Pedro Mariren etxeoak, Irune Galparsoro, Ixabel Ansa, Jabier Legarreta, Jose Inazio Salaberria, Jubilotekako erabiltzaileak, Lourdes legarreta, Maider Ansa, Maider Galparsoro, Maixux Zabala, Mari Ester Legarreta, Markel Oiartzabal eta Bitartean Folk taldea, Nagore Zabala, Udane Gascon eta Unai Muñoz.



L.G.: NA 2378-2016



**Aurkezpena**

3



**Emakume kirolariak**

4-8



**Jubiloteka txokotik**

9-11




**Sendabelarrak**

12-13



**Minazeraka kontu ta komeri... minazeraka ipuin...**

14-16



**Zer da herria?**

17



**Beti Arano gogoan...**

18-19



**Errezetak**

20



**Denbora-pasak**

21



**Pantailak euskaraz**

22-23



**Aranoko toki izenak, klik batean**

24





# Arano beti gogoan

**M**IAXIRIA aldizkariaren zazpigarren edizioa duzu eskuetan. Aurreko guztietan bezala, nagusiki Aranoekin lotutako kontuak edo aranoarrek egindako ekarpenak ekarri nahi izan ditugu, denon gustukoak eta interesekoak izanen direlakoan. Aldizkariak ez dauka hari bakarra, hari ezberdinez josi dugu aurtengoa ere.

Jubilotekek lagunek egindako mandalak ditugu, esate baterako. Irudia, Mandala bera, eta horrekin datorren azalpena, bakoitzak berea. Eta jubilotekan du jatorria beste lan batek ere, han sortu baitzen sendabelarren bilduma egiteko ideia. Lan-keta horren emaitzaren zati bat aldizkari honen orriotan ikusiko duzu.

Emakume kirolarien berri ematen du artikulua batek. Aranon badira batzuk eta, gainera, kirol mota oso ezberdinetan aritu

direnak eta ari direnak. Herri txikia da Arano, bai, baina emankorra dela ezin uka.

“Beti Arano gogoan” du izena beste atal batek. Hiru lagunek, zuzenean edo zeharka eta Arano gogoan izanda, beren hausnarketa partekatu dute guztiokin. Olatz Zugasti, Haritz Ezeiza eta Markel Oartzabalen gogoetak dira. Eta hausnarketa partekatzeko ariketa da, halaber, Markel Oartzabalek berak idatzitakoa: “Zer da herria?” galdera proposatu digu, eta pentsatzera gonbidatu.

Eta pentsatzen jarriko gaitu, halaber, Unai Muñozek osatutako denborapasen atalak: jokoak, asmakizunak eta elkarrizketa edo esaldi xebreak.

Ipuinak ere baditugu aldizkarian, Ezkerren Bordako Pedro Mariren ahotik jasotakoak paperera ekarrita, ziur asko etxe askotan ere ezagutu eta kontatuko zirenak.

“Pantailak euskaraz” artikulua, berriz, ipuinetik baino gehiago amesgaiztotik dauka, euskaltzalearen ikuspegitik behintzat. Izan ere, ingururik euskaldunenean ere, ezin saihestu erdararen presentzia itogarria, batez ere pantaila baten aurrean gaudenean.

Pantailarik ez da behar, ordea, xanpuak egiteko. Eta hori da, hain zuzen ere, “Xanpuan etxean egitea? Erraza eta ekologikoa” artikulua erakusten diguna, xanpua nola egin daitekeen, eta zergatik merezi duen, besteak beste.

Eta, bukaeran, kontrazalean, Nafarroako Toponimia Ofizialaren Bisorea izeneko erreminta. Tresna horretaz baliatuta Arano-ko toki-izenak mapan kokatu eta hainbat jakingarri eskuratu ditzakegu. Gure herriko aberastasuna da toponimia, baita gure historiaren isla ere, eta hori guztia hobeki ezagutzeko tresna praktikoa dugu bisorea.

# Emakume kirolariak



Aurora, Mixux eta Mari Ester.

**D**akizuen moduan, aurtengo festetan txupinazoa botatzeko aukera, Udalaren erabakiz, Aranoko emakume kirolariei luzatu zitzairen. Herrian frontoia hain eskura egon izan denez, betidanik neska eta mutil gazteak ibili izan dira eskuz edo palaz. Horien artean, Maixux Zabala Perutxokoa, Mari Ester Legarreta Mairtzenekoa eta Aurora Perurena Tximitxenekoa gustura ibiltzen omen ziren. Inoiz ez omen ziren herritik kanpora joan jolastera baina bai elkarren artean aritu eta baita mutilen kontra ere.

Aipamen txiki bat egin nahian txupinazoaren momentuan hauek ere bertan izan ziren besteen artean, herria bertan kirola egitea gustuko izan zuten emakumeak omenduz.

Garai haietan oraingo aukerak izan balituzte, batek daki, behar bada izango genuen gure artean punta-puntako plazandirenen bat.

Idea horri tiraka eta batzuk bai, baina beste batzuk ez genekienez zein kirolatan ibiltzen ziren edo ibili izan ziren, guztiéi galdera sorta hau erantzuteko eskatu genien.

Parte hartu nahi izan duten guztien erantzunen sorta hemen duzue eta baten bat bidean ahaztu bazaigu, aurretik barkamena eskatu nahi dizuegu, ez da intentzio txarrez izan eta.

## Hona hemen galdera sorta:

1. Noiz jaioa?
2. Noiz hasi zinen zure kirolean?
3. Txapelketaren batean parte hartu duzu? Zein urtetan? Zure lorpenen laburpen txiki bat egingo zeniguke?
4. Zer erakutsi dizu kirolak bizitzarako?

## Udane Gascon Zabalo (Futbola)

1. 2010-12-11.
2. 2021ean hasi nintzen Hernaniko futbol taldean.
3. Bai, Kluben arteko txapelketak jokatu izan ditugu 2021. eta 2022. urteetan.
4. Kirolak zera erakutsi dit, taldean parte hartzea, taldeko lana oso garrantzitsua dela eta era berean gozatzea ere.





Ainhoa (ezkerrean) eta Ixabel (eskubian).

## Ixabel Ansa Huici eta Ainhoa Ansa Zugarramurdi (Sega)

1. Ixabel (1954-01-30) eta Ainhoa (1980-12-31).
2. Herri kiroltako modalitate askotan maiz gertatzen den bezala, etxeko lanetatik datozen kirolak direnez, izeba ilobak segan bagenekien txikitatik. Baina 2002an Enklözterle izeneko Alemaniako Oihan Beltzeko Nazioarteko sega txapelketan parte hartzeko emakume taldea osatzera animatu gintuzten Almitza Segga elkarte-koek, dio Ainhoak. Hartara joateko taldea osatu genuen amak, horren ahizpa Milak, Maiderrek eta laurok. Ixabel, berriz, 2005eko udan Suitzara joatera animatu zen elkarte berarekin, 30 urtez gorako kategorian banaka parte hartzeko.
3. Ainhoaren taldeak Alemaniako txapelketa hartan 5. saria lortu zuen, "baino sega pikatzen gure amak egin zuen puntuetari esker" dio barrezka... Hortik aurrera, txapelketa batzuetan parte hartu

zuten, bai etxean eta bai Euskal Herritik kanpo ere, Suitzan, Okzitanian, Finlandian, Austrian, Alemanian eta Gironan esaterako.

Biek diote ez direla punta-puntan behin ere ibili eta ez dutela lorpen handirik kontatzeko baina, Ainhoak dionez, Gironako eta Okzitaniako txapelketak gure sega-kerara egokitzen dira eta han 1. eta 2. postuak eskuratu izan dituzte biek ala biek.

Ainhoak Finlandian ere taldeka 1.go saria lortu zuen eta oso berezia izan zela dio berarentzat. Batzuk aipatzekotan, hauetxek ditut memorian.

Ixabelek, berriz, zera dio, "Ormaiztegin launaka txapela irabazi genuen sega txapelketa batean eta azken urteetan oraindik Alemaniara joaten jarraitzen dut".

4. Biak ados daude honetan: "Kirolari ez gara sentitzen baina, segak baino gehia-

go, sega taldeak eta haiekin egindako bidaiek balio oso politak erakutsi dizkigute. Euskal Herria erakusteko eta gure kultura bistaratzeko edozein arlo ona dela ikusi dute, eta kirolak, herriak eta pertsonak elkartu egiten dituela".

Ixabel, segaz gain, mendizalea izan da beti. Donostiko "Club Vasco de Camping" mendi taldeko partaide eta federatua izan baitzen 1984-2017 urte artean. Mendi asko igo izan dituen arren haien artean kuttunak, Aneto eta Monte Perdidoz gain, Isaba inguru guzia izan du gogoko: Orhi, Auñamendi, Petretxema, Hiru Erregeen Mahaia... Gogoan ditu, baita ere, Gipuzkoako eta Behe Nafarroako bueltak.

Santiago bide frantsesa osorik bi aldiz egin du eta aurten udazkenean Arkupeko beste hiru kiderekin Sevillatik hasita Ruta de la Platako bederatzi etaparekin hasi da... Eta datorren urtean jarraitzeko asmoz gainera... Bejondeizula!



## **Araitz Legarreta** (Esku pilota eta futbola)

1. 2010-08-26.
2. Pilotan bost urterekin hasi nintzen eta entrenatzen zazpi urterekin gutxi gorabehera. Futbolean aurten hasi naiz.
3. Pilotan txapelketa askotan hartu dut parte. 8-9 urterekin hasi nintzen txapelketetan. Futbolean, berriz, Gipuzkoako ligan jokatzeko dut eta aurten hasi naiz.  
Nik futbolean oraindik ez dut lorpenik baino pilotan bi txapela, bi kopa eta bi medaila dauzkat.
4. Indartsua eta ausarta izatea erakutsi dit kirolak bizitarako.

## **Maidar Galparsoro Aierbe** (Igeriketa, gimnasia erritmikoa, eskalada eta urpekaritza)

1. 2000-05-02.
2. Kirol ibilbidea igeriketarekin hasi nuen Hernaniko taldean, zenbait lehiaketa egin nituen eta dominaren bat edo beste irabazi ere bai.
3. Gimnasia erritmikoa izan da urte luzeetan egin dudako kirola. 5 urterekin hasi eta 18 egin arte. Gipuzkoako txapelketa izatera iritsi nintzen eta Euskadiko txapelketa bigarren, 2016. urtean.  
Eskalada ere izan dut gustukoa, Fortuna taldearekin ibili nintzen indoor moduan eta boulder txapelketa batzuetan parte hartu ere bai. 2017an Euskal Herriko txapelketa gelditu nintzen 18 azpikoen mailan Iruñeko "Bihatz" rokodromoan.  
Azken 3 urtetan urpekaritzan nabil, 3 izarreko lizentzia lortu dut eta nire asmoa kirol hau arkeologiarekin profesionalki uztartzea da. Egun mendiko eskalada egiten dut afizio moduan.
4. Kirolak oro har eta batez ere nire kirol aukerak eskakizun pertsonal handia izan du eta lana, entrenamendua eta diziplina beharrezkoak izan dira beti. Jardun honek, gainera, gorputza menderatzearen plazerra sortu dit, uretan, pistetan eta paretan. Egun itsasoan eta mendian naturarekin bizi ditudan esperientziak dira plazer iturri nagusiak.



## Irune Galparsoro Aierbe


### (Eskalada eta futbola)

1. 2006-04-05.
2. Txikitatik ibili naiz kirol ezberdinetan, eskalada eta eskubaloiarekin hasi nintzen. Eskalatzen sei urterekin eta eskubaloian hamarrekin. Gero futbolera pasa nintzen eta hau bosgarren urtea da futboleant nabilena Añorga KKE futbol taldean.
3. Bai. 2020-2021eko denboraldian Gipuzkoako ohorezko kadete mailan txapeldun izan ginen. Eskaladan ere txapelketa herrikoietan badi-tut pare bat sari Euskal Herri eta Gipuzkoa mailan.
4. Kirolak gauza asko erakutsi dizkit: taldearekiko konpromisoa, aurkari-errespetua, jokoaren plazera, lehiaketaren zirrara, nere muga mental eta fisikoak ezagutzen... Kirola egiten dudanean, inguruko gauzak ahazten laguntzen dit eta baita nere buruarekin bat egiten ere.



**Lourdes Legarreta Zabala****(Harri tira)**

1. 1980-02-11.
2. Herriko pala txapelketan ere ibili izan naitzen arren, harri tiran 2012. urtian hasi nitzan apustu baten ondorioz.
3. Txapelketetan ez det parte hartu izandu. Apustu pare batian bai ordia. Aurrenekoa, zaldian kontra 8 neska ta biarrena, 4 mutilen kontra 8 neska baitare. Beste erakustaldi pare batian ere atera nitzan.
4. Kirolak nei lasaitasuna ematen dit, bizitzak ttun arazuak bazter batian utzi ta disfrutatu itten dut, pixka bat sufrittu arren jaja...

**Nagore Zabala Erdocio****(Pala)**

1. 1990-01-06.
2. Zortzi urterekin hasi nintzen palaz eta eskuz jolasten, baina azkenean palaz jolasten bukatu nuen.
3. Bai, 2002an hartu nuen parte lehendabiziko aldiz txapelketa batean eta geroztik hainbatetan parte hartu izan dut. Paleta gomaz hainbat txapelketa irabazi ditut, hala nola, Gipuzkoako txapelduna izan nintzen 2004an eta 2005ean. Etxarri Arantzeko txapelketan txapeldun 2005ean. Gipuzkoako eta Euskal Herriko klubaren arteko txapelduna 2006an eta Emakume Pilotari txapelketako 2. mailako txapelduna 2008an. 2006an EHPK txapelketan txapeldunorde ere geratu nintzen.  
 Aranoko jaietako pala txapelketan ere hainbatetan parte hartu izan dut. 2002an txapeldunorde geratu nintzen eta 2003, 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2018an txapeldun.  
 2018an Donostiako Trinitateko txapela ere lortu nuen.
4. Lana eta esfortzuekin nahi duzun hori lortu dezakezula.



# Aranoko jubiloteka txokotik

**Gizarte Zerbitzuen bitartez Jubiloteka Aranon ere eskaintzen da. Maisuenen herriko 6 lagun elkartzen dira astean behin eta, beste lanen artean, pintaketa lanetan ere aritzen dira. Ikusi hemen astero-astero egiten dituzten lanen lagin bat...**

**Maria Jesus Zugarramurdi**

Itxaropena eta irudimena jostaka hastean, urru-neko mendien gainak zeharkatuz badoaz globo koloretsuak. Itsasbazterrera iristear da, ordea, itsasontzia, itsasargiaren deiari erantzunez! Bartzuetan abenturarik politena etxerako bidea asmatzen jarraitzen dugula ikustea baita... han besoak zabalik aurkituko ditugula jakitea...



**Aurora Perurena**


Euriaren emanak oparotasuna dakar... eguzkiak laino atzean atsedean har dezake! Dabilela sorgin haizea orbela astintzen! Udazkeneko sagarrak bilduta dago, atsedean hartzen, basanderea, ilea haizeari jostaketarako emanda. Lainoen ilunak ez ditu haren hanka azpian sortzen diren lore biziak itzali. Askoz biziago egin bai, ordea! Euri azpian bizitzen ikasia da basanderea... Aranoko basoen ederra bezala.

**Joxefina Olaetxea**

Hanka sendoak, belarri erneak, atzapar zorrotzak, mutur betea. Isats lerdena, ile gorria, begi bixi eta sudur tentea. Bere eginak ditu Aranoko zokoetako hur, ezkur, intxaur eta gaztainak. Bai eta bizileku dituen hainbat basoetako hosto, belar, goroldio eta adar gainak...

**Iñaxi Zabala**

Badira bizitzan zailtasunak, zailtasun guztietan zalantzak, zalantzetan erabakiak, erabakietan zuzen eta okerrak, eta bidea egin izanean, bada indarra. Ilunetik argirako gaitasuna gutako bakoitzarena da. Lore hau lokatzetan kolore biziko agertzen da... gu irabazle agertzen garen bezala.



## Ana Mari Legarreta

Bitzta bada zuhaitz bat. Zainak lurrean sartuta, bertatik korapilatuz igoz doa lurak duen jakintza, lurretik hostoetaraino, hostoetatik airera hegan... Lurrari itsatsita, baina haizearen hegalekin dantzan. Kulunkan... Bizitzaren zuhaitza gu geroni gara, naturaren indarrak xurgatzen saiatzen den eta haizearekin dantzan dabilen izakia. Batzuetan ahul, besteetan sendo agertzen dena...



## Joxentio Ansa

Negua bistan da. Hotza eta isiltasuna. Gorputzeko koloreak apaltzea dator, begiak ixtea, lepoa uzurtzea, barnera begiratzea... barneko suaren epela bilatzea. Bada bada... kanpoko hotzari aurre egiteko bidea, etxekoaren suaren epelean abaro egitea... udaberriaren aiherra zure begiradan sentitzea.

● Testuak: Ainhoa Ansa  
Irudiak: Jubilotekako erabiltzaileak

# Sendabelarrak, gure memoria eta ahozko ondaretik


**A**ranon lehen ere egin izan dira senda-belarrak ezagutzera eman eta horien propietate eta aukerak elkarri erakusteko saiakerak. Duela urte batzuk, San Martin egun batez, jende asko elkartu zen (batez ere emakumeak) Suron "patas" izenez ezagutzen dugun ukendu bat egiten ikasteko eta, bide batez, landare desberdinei buruz hitz egiteko. Miaxirian bertan ere, belar batzuk aipatuz artikulu ederra egin zen lehen alerako.

Jakin-min horri tiraka, maiatza aldera, Ju-

bilotekan sendabelarren bilduma bat egitea pentsatu zen. Ideia Aranoko erabiltzaileen artean sortu zen, eta ideia horretatik ateratako emaitza Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranokoen artean osatu genuen. Liburuxka dotorea osatu ere!

Hemen, MIAXIRIAN, gehienbat Aranon ezagutzen ditugunak ekarriko ditugu.

Eta hortik aurrera, beste zerbaiti buruz eta gehiago jakin nahi duenak, badaki jubilotekaren berri!



## Landare eta Sendabelar Bilduma

Jubilotekako erabiltzaileen jakintza bilduz...

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzua

## Arrosa

Arrosen ura azalarentzat ona dela esaten da.

Hiru edo lau egunez uretan sartu petaloak eta laugarren egunean, ahal bada San Juan bezperan, harekin azala garbitu behar da. Ura hurrengo egunetan ere ona egongo da eta azala leun leun uzten du.

## Hasi aurretik esan beharrekoak...

Landare eta Sendabelar Bilduma hau Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Jubilotekan hasi dugu 2022ko maiatzean. Gutxi edo gehiago, guztiok dakigu gure inguruan sendatzeko edo minak arintzeko landare eta belar ugari ditugula. Eta gutxi edo gehiago, denok dakigu hauetakoren baten inguruan zerbait.

Bilduma honek Jubilotekako erabiltzaileen jakintza biltzen du, baina ez da inondik inora sendabelarrak edonola erabiltzeko errezeta liburua. Kantitateak eta zer zertarako erabili, hortaz dakien baten laguntzaz egin beharreko gauza da.


Hau memoriaren eta ahozko ondarearen bilketa lana izan da. Ilusioz egindako lana, jakintza horrek atzetik soka izan dezan...

## Babarrun azala

Odoleko azukrea jaisteko. Urarekin egosi eta haren ura hartu.

## Amabirjin belarra


Ebaki egin berriak garbi  
dukitzeko eta ebaki edo  
urratuak ez gaiztotzeko  
erabiltzen zuten Aranon.  
Lendian zirela batez ere,  
este garbitzeko modurik ez  
zuten, landare honen ostoa  
zaurian jartzen zuten.



## Erruda

Oiloen inguruan izatea ona  
dela diote, zorriei ez omen  
zaie-eta gustatzen bere  
usaina.

Haurdun daudenak  
errudarekin kontuz ibili  
behar dutela entzuna dute.



## Karetx belarra

Karetxak erretzeko erabiltzen  
da bere adaxka mozterakoan  
ateratzen zaion salda zuria.

Kontuz ibili behar da  
begiekin eta hortzekin, oso  
gogorra baita eta hauetan  
kalteak eragin baititzake.

### Patas ukendua (gaiztotutako zaurientzat)

1. Baso erdi bat oliba olio
2. Txinbo jaboia erditsua
3. Erretxina, txinboren neurri bera bolumenez.
4. Argizari naturala neurri bera bolumenez.
5. Seboa kopuru bera bolumenez
6. 6-7 baratzuri ale, behatzekin zapalduta
7. Pasma belarra eskutakada bat

Aluminiozkoa ez den eltze edo zartagi batean sutan jarri dena,  
baratzuriak gorritu arte. Sutatik atera eta trapu zuri batean  
iragazi kristalezko ontzietara. Hoztean gogorra geldituko da.



Ezkerren Bordako Pedro Mari.

# Minazeraka kontu ta komeri... minazeraka ipuin...

**M**IAXIRIA honetan Ezkerren Bordara egin dugu bisita, eta Pedro Marirekin sukalde txokoan hizketa saio bat egin ondotik, bi edo hiru ipuinen aztarna harrapatu dugu. Herrian noizbait jakingo ziren, eta etxe guztietan kontatu. Badirudi, egunaren bukaeran umeak etxetik gertu mantentzea zela ipuin hauek asmatzearen helburuetako bat... Baina aitortu behar dut, nik ez nituela hemengo detaile batzuk ezagutzen!

Behin eta berriz esaten du Pedro Mari, ume umetatik gauzez asko ibili behar izaten zutela, "beti ilunbatan", Pedro Mari dioen bezala. Batez ere, arditara buelta egiteko tenorea izaten zuten, eguna argitu aurretik eta ilunabarretan ("iñularrian"). Eta kontatzen ziren istorio hauekin erabat izututa ibiltzen zela aitortzen du Peiok.

Izan ere, "Gaua gauekoentzat eta eguna egunekoentzat". Horrela esaten omen zuten "Gaukok", gauaren eta iluntasunaren jaunak. Eta gauzez, ilunduta lanean edo bestelako edozein zereginetan zebile-na izutzen ibiltzen omen zen, gaua berea

zela erreklamatu. Horretarako, lamiak, sorginak, jentilak, txerriak... edozein izaki baliatu omen zezakeen eta... tira! Hau ez da Aranon jaso dudana ipuina, baina ez didazue ukatuko, honen eragina ez dutenik ondoren irakurriko dituzuenok!

Ez dago nahitaez esan beharrik nori eta non pasatakoak diren gertakizun hauek, izan ere, ziur naiz Latse aldeko magal horretan gordetzen diren altxor hauek herriko gainerako etxeetan ere kontatzen zirela aspaldi, bakoitza bere protagonista eta bere ñabardurekin. Peioren hitzak dituzue ondokoak. Bera ezagutzen dugunok jakingo dugu aranoarrez idatzitako hitz hauei berak ematen dien doinu eta grazia ematen.

Ea ba gustukoak dituzuen!

## Zerrian bultoa bidean...

**"Aolakua menditik heldu zela ilunduta (beti ilunduta ibiltzen zian ordun ar-tzaiak... ni re! majiñat aldiz, erki izutua!) eta nonbatte, Deskargatik betti fabrikan barna errota sartzen zian, ta**

**handikan itxee juan. Ta nonbatte, ez dikit ba, fabrikan o errotan o... zerrian bultua aurrian jarri men zitzain! Da itxee ailetu biño lehentxio desaparezittu men zitzain!"**

**"Osabak eta Leontxon Bordakua e ixtori igualtsua zuen (...)"** Osabak ez omen zuten ikusten, eta Leontxon Bordakoak bai! Hari etxeraino lagundu eta etxera nola etorri zen kontatzen omen zuten Ezkerren Bordako osabak.

## Lamiak lamiosin, lamisain, lamusin,... Lamin putzuan

**"Lamin putzua hortxe izaten da oain e. Ta gue ama zenak saten zun ixtoria, familia ta izaten zuenian, Estartako amona, auskalo noizkua, eamanazten zuela launtze. Ta han maten men zizkiyuen gauzak, ikaragarri polittak, ez dikit ze koloretakuk ta... kanpo atetzian seit-tun beltzatu itten men ziala! Hoi saten zun amak...**

Euskal Herriko ipuinetan, lamiek eraikiak izaten ziren zubi asko, gau batean eraikiak gainera, oilarrak aurreneko kuku-rrukua jo aurretik. Ea Latseko zubia lamiek eraikia dugun...

“Ostakustik heldu emen zian ta Leon-txon Bordan itxian azpikaldeko kruzi hortan ikiaraarrizko bufaakuk o zala-partak o... hemen Mitxeleneko borda bado ba? Hortik ate men zian, ez jakin zer! Sekulako armonikin ate men zian da... ikiaraarrizko haiztiya zen hor da... aizkoran, txandan ai baizian bezela! Ikaragarritzko saiua in men zuen da... belexe arbola bota baizuen bezelaxe... ikiaraarrizko soinua! Ta... biyamon goizian jua da beira eondu men zen da... haitz guzik zutik!”

### Eta Larriturrin, zer?

Gabeko eskolatik itxee men zijuan Bordaxtakua (...). Gue osaba zaharra, Bordaberrin izaten zun arreba ta, hura han morroi. Ta... Larriturrin aurre zijuala, goiko Aizbitan (Pablon Bordako hortan) han haitzak zian ordun ta... ikaragarritzko karraxik nola sumatu zittun goian da Bordaberrira sartu! Ta hark (osabak) laundu men zin Bordaxtaino. Eta honontzian, igual-igual berri-ze, hura (osaba) Bordaberrira ailetze zijuala harrei launduta, goian nonbatte ikaragarritzko karraxik nola sumatu zittun saten zun... Ta korrika jua da itxee nola sartu zen! Karraxi haik zerk itten zittun ez ba jakin!”

Berak ere izan zuen sustoa behin kontu honekin, Larriturrin gaikaldean karraxiak sumatuta... eta korrika eginahal guzitan zihoala, Leontxon Bordako aitonarekin topo egin eta hark esan omen zion parrez, haien zakurra zela “Atzeikuakin” borrokan. Orduan, labana sartu eta ez omen zitzaion odolrik aterako, eraman zuen susto eta “be-lozidadearekin”!

### Etxera ezin ailegatuz...

deskargakua zen hau re, Latsetik gotti abitu ta ikaragarritzko karga bizkarran jarri! Ta, iñalak in ta itxee ezin ailetu! Itxee ailetu biño lehentxio, tak! Kendu omen zitzain (karga)! Geoztik ez omen zun onik izandu! Hil men zen geo... Ez dikiu ze izain zun...



### Ipuinen kontuarekin irudikortuak...

“Deskargakuai herrin san men ziyuen: “Gaur sorginak ateko zaizkik!” Ta berak... “bai! Juanan Soroko petroia ateko zak!”

Taka-taka ba omen dijua Latse, ta Latseko zubira ailetu zenian, behiak izaten zian denbo batian, perrak lasaituta ikiarrizko soinua jotzen zuenak! Mekaben! Latseko zubira ailetu zenian, goitik betti... ikaragarritzko soinukin! Perra soinuk! Buelta manda, Larratxurira torri ta, bertan lo inda jua zela! Saten zun gue osaba horrek!”

“Beste bidetxior bat izaten zen Ostakustik beheko errekan pasa ta Bordaxtan barrana, Larratxurin barrana, ta... haize pixkan bat bai men zen ta... nonbatte hor abituta ta, Elutsaundiko nortehaiztan, zerbate muitzen men zen! Ta... “mekauen... zerbate bauk ba hor!” piura jarri ta... dena sorgin kontua izain zen ordun da... ez dikit zenbat denbo in zula harrei beira! Muittu itten men zen haiziakin! Noizbatte de-

zidittu men zen aurre juatia ta... iratze haundi bat haiziak nola muitzen zun...”

### Sorginen izenean...

etxeberriko amona astuakin, goizian lautan jeikita juaten men zen Hernanira enkarguk itte, da... dios... amon hau izutu bihar diu ba noizbatte (bakarran batzuk pentsatu), da bat eo bi ate men zian maindirian bilduta amona izutuko zuelakun da... “aitaren da semiaren da espiritu santuaren... garai hok ta oaindik hemen?” San men ziyuen da... arre! Ta martxa amonak bate kasoik in gabe!

Kontuak kontu, Ezkerren Bordako osaba Bautista bezala, kontalariak ziren herritarren etxeetan oraindik mantentzen diren ipuinak dira! Eta herriko ahozko ondareari eustekotan, ariketa hau egitera gonbidatu nahi nituzke herritarrak: batez ere, ondorengo belaunaldiei transmisioa egiteko ardura sentitzen dugunok, ipuin hauek eta beste asko ikasi eta elkarbanatu ditzagula.

Gau on guztioi...

● **Testuak eta marrazkiak:** Ainhoa Ansa



## Zer da herria?

**Z**er da herria? Galdera hau askori plazaratuta erantzun anitz jaso ditzakegu. Batek "Ehun ta hamaika biztanle dituen hori" erantzungo du, zenbaki zale denak seguru. Demografian aditua denak "2014an bildutako errolda datuak" direla gehituko dio. Ikuspuntu humanizatuagoa duen hori elkarrizketa gehituko da eta "babeslekua" botako du airera. Hizkuntzak maite dituenari "euskara" etorri zaio burura, ondoan duenari "ama". Eta orduan konturatu gara ez garela erantzun bakar bat emateko gai, aldamenean dagoen batek mugikorra atera eta ozen irakurri duen arte: "Euskaltzaindiak dio herria lagunartean eta lurralde jakin batean bizi diren, eta

elkarrekin hainbat ohitura eta erakunde dituzten gizakien multzoa dela". Akabo eztabaida.

Eta izatez, hala da, bai. Definizio txukuna eta borobila bota du, potolo samarra akaso. Baina herria ez da esanahi leerro horretan bakarrik geratzen, "herria" hitzak arrazionaltasunetik gutxi du. Niretzat ere, herriak badu bere nondik norakoa. Honatx:

Badira herri bat sortzen dutenak. Eta badira sortzen ez dutenak ere. Hamaika auzokide izateak ez du herririk sortzen, bizilagunarekin gurutzatu eta "egun on" irribarre batez botatzeak ordea, bai. Igan-de goizek ez dute herririk sortzen, igande goizetan herrikideekin taberna atarian

elkartzeak ordea, bai. Aurten hiruzpalau jaioberri izateak ez du herririk sortzen, belaunaldien oinordekotza ikusteak ordea, bai. Herriaren gaineko aldizkari bat izateak ez du herririk sortzen, talde txiki bat aldizkaria sortzeko biltzeak ordea, bai. Baziren, badira eta izango dira herri bat sortzen dutenak; baziren, badira eta izango dira sortzen ez dutenak ere.

Argi dagoena, zera da, herria herriak sortzen du, herritarrek sortzen dute. Beraz, bai, herria ehun eta hamaika biztanle dira, errolda datuak dira, babeslekua da eta ama ere, bada. Utz dezagun hutsunea herriaren definizioan, bakoitzak erabaki dezala zuriune horretan zer idatzi. Zuretzat, zer da herria? ● **Markel Oiarzabal**



# Beti Arano gogoan...

**U**rrutira joanda ere, ez al zaizue gertatzen Aranokoa den edo Aranoko arbasoren bat duen norbaitekin topo egiten duzuela askotan? Herri txikia izateko, uzten duen aztarna handia dela esango genuke?

Atal honetan, beren sorkuntza lanetan Arano gogoan izan duten lagunen hitzak bildu ditugu. Aipamen bat, dagoeneko gure artean ez badago ere, bere herria beti bihotzean izan duen Xabier Narbarte herriarrentzat ere...

Xabier, "Jabier Martzeneko Bordakua" herrikoentzat, Bartzelonan bizi izan zen azken urteetan eta Euskal Herriaren eta Aranoren alde hainbeste lan egindakoa zen. Aitzakia hartu dut bere izena MIAXIRIA honetara ekartzeko, Aurorak eman didan aldizkari batean berak idatzitako artikulua bat aurkitu dudanean. 1985eko uztailaren



"Aritza" aldizkaria.

argitaratua da, Bartzelonan, "Aritza" aldizkariaren 6. zenbakian eta bertan, "de pueblo a pueblo" izeneko atalean, gure herriari buruzko datuak, ipuinak, festak, historia,

pertsonaia ezagunak, kirolariak, anekdotak eta baita bertso ezagun askoak ere eraman ditu Bartzelonara. Mila esker, Xabier, Aranori egindako keinu guztiengatik.

## Mairu baratzetan

Orain dela urte batzuk hasi nintzen Aranori kantu bat egin nahian, baina saiakerak egin arren ez nuen ezer gustukorik lortzen.

Halako batean herri doinu bat birmoldatu nuen, erritmoa aldatuz, eta ijito airea hartu zuen.

Orduan, ez dakit zergatik, baina iñauteriak etorri zitzaizkidan burura, xomorroak... Oroitzapena martxan jarri eta santiotan etortzen ziren *ferianteez* ere gogoratu nintzen, plazako Lourdesek palaz pilotari emateko zuen estilo izugarriaz, baita haiek liluratuta uzteko zuen ahalmenez ere; Perurenatarren etxeaz, izeba Paulaz, goizeko ogi usainez, Luxanbiko uneez... San Rokera doan bide politean barna abiatu nintzen eta mairubaratz harrigarriekin topo egin nuen, berri. Historiaurrea begien aurrean, aintzina eskueran. Aranokoa zen gure aitonari hitz egiten hasi nintzaion orduan, eta hor zegoen kantua, forma hartu zain.

Arano, Euskal Herriaren Historiaurrearen gordailu da, baina baita honen Historia berarena ere, hain zuzen Nabarrako Erresumaren ikurra (berandueneko IX. mende ezkerotik euskotarron Estatua denaren armarrria) elizako atari zaharreen zizelkatua



dagoenez. A ze altxorra!! Esan behar MiAxiria aldizkariari esker izan nuela honen berri, nahiz eta hainbat eta hainbat aldiz aurretik igaro eta ikusi ez!

Eta honekin beste zerbait datorkit gogora: gure amonak esaten zidan nola Aranoko ahaide batzuk Hernanira etortzen zirenean esaten omen zioten "gu euskaldunak ez, gu naparrak gea!" eta gure amonak orduan "zuek nahi bazue ta nahi ezpazue euskaldunak zeate!". Egia esan Euskal Herriari mendeetan zehar egin zaion kaltearen adierazgarri da eztabaida hori, eta Aranoko haiek ez

jakitea euskaldunak edo euskotarrak zirela (nazio edo Herri gisa), eta Hernaniko nere amonak ez jakitea bera ere naparra zela, napar hiritarra (Estatuak ematen baitu hiritartasuna). Europako beste hainbat Herri bezala (Suomitar- Finlandiar, Magiar-Hungariar e.a.) gureak bi izen ditu Herriarentzat baita eta honek sortutako Estatuarentzat bestea: Euskal-Herria eta Nabarrako Erresuma.

Zeinek esango zidan Arano bezalako herri txiki batek isilpean honelako altxorrak gorduko zizkigunik, mendez mendez.

● **Olatz Zugasti**



## Istorioek bizirik jarrai dezaten

*Amaia* liburuaren atal batean, amaiak istorio bat kontatzen dio lagun bati; hasiera batean, ez zuen inongo garrantzirik kontakizun hark, baina beranduago beste ikuspuntu batetik begiratu nuen. Zuriune hark aukera ematen zidan gainerako istorioan eragingo ez zuen pasarte bat sartzeko, fikzioko metafikzioa sortzeko.

Bilaketa lanean hasi nintzen orduan eta bilatze-saio horietako batean noizbait *MiaXirian* irakurritako testu bat bururatu zitzaidan, lamiosin-ena. Testua bilatu ondoren, arina izan zen borobiltze prozesua. Izatez,

testua bakunagoa da, simpleagoa, baina irakurtzearekin bakarrik, osatzen joan zen gidoian agertuko zen kontakizuna: bi anaiak, astoa, uzta... Ikuspegi zinematografikoagoa eman behar zitzaion ahoz kontatutako istorio motz hari eta horren bueltan idatzi zen hala. Dena den, gidoi moduan idatzita dagoen arren, ahozkotasan kutsua mantentzeko ariketa egin da, narratzaile batek kontatzen baitu. Jatorrizkoa den testu horrek ere badu erreferentzia, gidoko amonaren hitzen gisa islatu baitira.

Sortzaile garen heinean erantzukizun batzuk ere hartzen ditugula uste dut. Zapaltzen dugun lurra ezagutu behar dugu, bertan bizi ziren ahotsak berreskuratu. Garaian ahoz kontatuko zen istorioa hartu eta egungora moldatu, bizirik jarrai dezan, eta bide batez ahoz aho jarrai dezan. Zati handi bat berdin mantendu da jatorriari zilegitasun bat eskaintzeko, baina beste zati bat aldatu da kontakizunak eboluzioan jarrai dezan. Sortze jolas polita izan da gidoiarena, gogoz egindakoa.

● **Markel Oiarzabal**



## Denak ez ziren indiano

*"Benetako euskalduna izateko, Ameriketara osabaren bat eduki bear omen da. Egi-egia esan zuan ori asmatu zuanak. Alegia, geiegizko jendea joan zala emendik itxas arunzko lurralde aietara."*

Antonio Zavala Tolosarrak 1984an argitaratutako "Ameriketako bertsoak" liburuan zitaturako hitz hauekin hasi nahi dut ondorengo idatzi hau. Izan ere, musikalki ateratako azken lanaren mamia eta funtsa gai honetan oinarritzen da.

*Denak ez ziren indiano* izena du, Bitartean Folk taldeak ateratako azken lanak. Bertan, XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasieran izandako Euskal Herrikan kanporako migrazio izugarriak eragindako mina eta egonezina transmititu nahi da.

Askotan aipatu izan da Ameriketara egindako bidaia arrakastatsuen istorioa. Ameriketara joan, eta txin-txin, diruaren hotsaren erritmora etorritakoena. Ez da hori, ordea, horrela izan beti. Ez, noski. Bidaiatik hasita, eta bertan egin beharreko lanekin segita, bizipenak ez baitziren xamurrak.

Honela, aipatutako bertso liburuan zita gehiago ere aurkitu genitzake. 1883ko abuztuaren 13an, *El eco de San Sebastian* egunkarian argitaratutako berri batek honela dio:

*"Se ha autorizado al Poder Ejecutivo de la República Argentina para contratar la inmigración de 10.000 vascongados como mínimo, y de 15.000 como máximo, en el término de cuatro años ...*

*El gobierno pagará diez pesos nacionales por cada inmigrante adulto, y cinco por cada niño mayor de doce años y menor de diez y seis".*

Hemen aipatzen den bezala, 10 eta 15 mila lagun bitartean izan ziren baimenduak Argentinan sartzeko. Euskaldun askok ekin zioten bideari diruz lagunduko zituztelakoan. Pertsona

heldu bakoitzeko 10 peso argentinara, eta 5, ume bakoitzeko. Honek adierazten du adin txikiko ume asko ere abentura honetan murgilduak izan zirela, seguruenik, asko eta asko, behar-tuta. Beti izan da hau tabu izugarria gure Euskal Herri mailan, akaso, egunen batean azaleratu eta landu beharrekoa.

Urte bereko irailaren 24an, Buenos Aireseko eta Montevideoko egunkarietatik jasotako zita batek ere honela esaten du:

*" ... la república del Uruguay, la Argentina y Chile han acordado promover la inmigración fijando su mira en los colonos euskaros y habiendo determinado contratar entre todos unos 25 o 30.000 emigrantes vasconavarros".*

Dirua tarteko sartzen denean, berriz, arazoa segurua da. Inmigrazio dei hauei, 'jende bilatzaileak' direlakoak ere gehitzen baitzaizkie, hau da, jendea Euskal Herrikan erdi engainatuta eramateaz arduratzen ziren pertsona lotsagabeak.

Gurean ere bada bidaia honetan murgildu zen senitartekorik. Kasu honetan, nahiko ongi ateratako bidaia eta esperientzia bizi izan zituen. XIX. mende bukaeran, Argentinara joan, eta bertan bizimodua ateratzea lortu zuen, eta bertan familia osatu eta bueltarik ez zuen egin. Gaur egun, berriz, kontakua berreskuratzea ere lortu da.

Hain zuzen, istorio horri lotuta, Arano herriari eskaintako doinu bat aurkitu daiteke aipatutako musika bilduman, bertako nahiz bidaia egin zuten aranoarrei eskainia.



Youtube. Bitartean Folk Taldea. Arano.  
<https://youtu.be/623mjC2HJnU>

# Xanpua etxean egitea? Erraza eta ekologikoa

**E**gunerokoa sortzen dugun plastikoko hondakin kopurua murrizteko hainbat estrategia ezagutzen ditugu dagoeneko. Erosketak egiteko oihalezko poltsa berrerabilgarriak, banbuzko hortz eskuilak, granelan erositako xaboiak edo jakiak... hainbat saiakera eginak izango dituzu zuk ere, baina hemen nire azken hautua kontatuko dizuet. Xanpu solidoak. Xanpu solidoak, xaboi pastilla modukoak dira eta ilean igurtziz ateratako

aparrarekin garbitzen da ilea. Berritzailea dirudi, baina ez da. Betidanik egin izan da xaboi baserrietan.

Hala ere, aitortuko dizuet, gaur egungo higiene ohiturak eta garai batekoak berdinak ez direnez, niri gogor xamarrak iruditzen zaizkidalda zenbait artisau xaboi. Batzuek ez dute usain atsegina, besteek ilea latz antzean uzten didate... baina soluzioa topatu dut. Nik neuk etxean egindako xanpua. Errezeta hau "Atelier Lorako" Ma-

riarekin ikasi nuen eta erraza izateaz gain, bakoitzaren beharretara egokitzeko modukoa da. Niri asko gustatu zait eta zuk ere egin nahi baduzu, hementxe duzu aukera!

Osagaiak ahalik eta gertuen lortzea garrantzitsua da, baina besterik ezgait Internet laguntzaile ona da eta hiru web orri hauetan produktu onak eta ingurumenarekin errespetuzko jokaera dute, beraz gomendioa hemen: "planeta huerto", "camassia" eta "aromazone". Gainera, proba egiteko taldean erosketak egitea ere interesgarria da bidualketa gastuak eta materiala elkarbanatuz.

Xanpu bakarra egiteko neurriak emango ditut eta bakoitzak bere neurria egokitu dezake. Nik 6 madalena egiteko molde batean 6 xanpu egiten ditut, beraz hemengo neurriak bider 6 egiten dut dena.

- 41,5 g SCI (sodium cocoyl isethionate)
- 8,33 g buztin (edozein koloretakoa. Bakoitzak propietate desberdinak ditu)
- 10 g koko olio
- 10 g jojoba olio
- 0,25 g E bitamina
- 0,55 g esentzia olioia (adibidez labanda, baina zure gustukoa aukeratu dezakezu)
- 13 g CAPB (cocobetaina)

1. Osagai lehorrak ontzi batean xuabe-xuabe nahastu behar dira eta musukoa jantzita egitea gomendatzen dizuet. Airean erraz zabaltzen dira eta toxikoak izan ez arren, desatseginak dira eztarrian eta sudurrean. Osagai lehorrak SCI-a eta buztina dira.
2. Gainerako osagaiak gehituko dizkiegu lehorrei eta oretu egin beharko dugu!
  - a. Koko olioia solido egoten da gehienetan eta maria bainuan urtu.
  - b. Kontuz! Olio bat nahi gabe gehiegi botatzen badiogu, beste bat gutxiago botata konpentsa daiteke, baina osagai lehorren eta likidoen portzentajea mantentzea garrantzitsua da!
  - c. Bestalde, CAPB-a azkena botako dugu, gogortzen hasten delako berehala.
3. 80-85 g-ko pilotatxoak egin eta moldeetan ongi prentsatu ditugu eskuarekin. Ez du batere zikintzen eta lasai sar ditzakezue eskuak.
4. Moldeetatik berehala atera ditzakezue eta ondoren paperean sartuta gorde ditzakegu leku lehor batean.



Aurrez aipatu moduan, osagai lehorren eta likidoen portzentaia mantenduta, zuen probak egin ditzakezue. Olio bat beste batekin trukatu, buztin kolore desberdinak, olio esentzial desberdinak, buztinaren partez olo irina... probak zuen esku!

Bestalde, material guztia erosi eta proba egitea pertsona bakarrarentzat garesti xamarra izan daiteke, hortaz, lagun artean eskatu eta guztia elkarrekin egitea aproposagoa da.

Azken gomendioa! Duxan xanpua ahalik eta lehorren mantentzea komeni

da. Putzu batean geratzen bada erabili ondoren, bakarrik desegiten joango da, beraz, ahal dela xaboiarentzako "jabonera" horietako batean gorde.

Animo! Etxean eginak eta ekologikoak, ez du parerik!

## 15 Makiltxoen Jokoa

**Magiako liburu batean ikasi eta ondoren Interneten ikusi nuen jokoa simple baina zail bat da, hainbat bertsio eta jokatzeko modu ezberdin dituena. Hona hemen bat:**

Edonork eta ia edozerekin joka dezake. 15 makil, karta edo bestelako objektu txiki besterik ez dira behar. 15 makiltxoak 3 lerrotan kokatzen dira; lehenengo lerroan 3 makil, bigarren goan 5 eta hirugarrenean 7 (beheko argazkia ikusi). Bi jokolari behar dira gutxienez. Makiltxoak kendu behar dira, baina bakarrik lerro bakar bateko makiltxoak kendu daitezke txanda bakoitzean. Horrela, jokolari batek kentzerakoan besteak kentzen ditu, bat gelditu arte. Azken makiltxoa hartzera egokitzen zaion jokolariak galtzen du.



Nahiz eta nahiko sinplea dirudien, "tiene su cosa". Ikusiko duzue ibiltzen bazarete. Hemendik animatzen ditut herriko tabernako terrazan egoten diren "a los mosqueteros" (besteak beste, Tutu, Francis eta Jose Antonio Legarreta jauna) niri partida bat irabaztera. Are eta gehiago, niri irabazten didana tabernan pintxo batera gonbidatuko dut. Ezetz irabazi!  
=>

## Asmakizunak

Tabernan nahiz bestelako herriko tokietan hizketan egoten direnei zuzendurik, aranoar bati Aranon bizitzeko kotxeko karneta ez dela behar buruan sartzea baino esfortzu eta denbora gehiago eskatzen duten hiru asmakizun bildu ditut. Nola ez, herriari erreferentzia eginez. Animo.

1. Aranoko 5 igeltserok 5 urte behar dituzte 5 etxe egiteko. Zenbat denbora beharko lukete 10 igeltserok 10 etxe egiteko?
2. Oier Hodeiri begira dago, eta Hodei Mañeli begira. Oier ezkondu dago, eta Mañel ez. Ba al dago ezkongabe bat, ezkondu bati begira?  
**A:** Bai  
**B:** Ez  
**C:** Ezin da jakin
3. Pilota eta erraketa batek 1,10 € balio dute guztira. Erraketak pilotak baino euro bat gehiago balio du. Zenbat balio du pilotak?

Erantzunak ez ditut hemen jartzen irakurleari pentsarazteko eta herrikoen artean hitz egiteko. Eso, y que soy un pillin. Ezetz 24 ordutan soilik hiru asmakizunak ongi erantzun... Erantzuna badakizuela uste baduzue, niri galdetu erantzuna ziurtatzeko (nahi baduzue); eta asko saiatu ondoren erantzuna jakin nahi ezke-ro, bi aukera:

**A aukera:** pentsatu gehiago  
**B aukera:** niri esan

A! Eta erantzunak dakizkizuenoi, ez esan besteei ez badute erantzuna jakin nahi!

**Asmakizun hauen egile originala:** Daniel Kahneman.  
**Liburua:** Kahneman, Daniel (2011): *Thinking, Fast & Slow*. Estatu Batuetak: Farrar, Straus and Giroux.

## Aranon eman diren elkarrizketa edo esaldi xelebreak

### 1. By Jokin Ollo:

Jokin eta biok erraketan ibili ondoren, pilotarekin paseak egiten hasi ginen etxerako bidean; eta egiten dugun gutxia aldrebes egiteko talentua daukagunez, pilota iturriko bide ondoko estolda barruan (alcantarilla) gelditu zitzaigun ataskatuta; nahi gabe. Aipatutako talentuaren kontuak. Errexa ematen du baina badauka bere konplexutasuna pilota hor uzteak.

15 minutu behar izan ondoren pilota ateratzeko, estolda edo barandilla hori berriz bere tokian jartzeko nahiko komeriak izan genituen, eta erdi jarrita edo erdi aterea utzi ondoren, hauxe galdetu nion Jokini:

- Ni: Pisatzeik barandilla honek eee
- Jokin (desesperatua): Eske es el puto suerte tio...
- Ni: Hau ola utzi bar al du?
- Jokin: Ba, ya lo pondrá bien el aguazibil!

Jokin Ollo, 2021

"Efectivamente", horrela utzi genuen, erdi aterea.  
=>

### 2. By Tutu:

Herriko frontoian nintzela "Tutu"rekin hizketan honako hau atera zen...

- Inglesa ez al dakik ba?
- Inglesa? Bai zea, keba keba
- Deusez?
- Kebaaa!
- Ezta "Hello" zer den e?
- Hello?... Hello Kitty!

Tutu, 2022

"Efectivamente", ez zekin zer zen "Hello"... Inglesa ez dakienarentzat, "Hello" hitzak ingelesez "Kaixo" esan nahi du.

# Pantailak euskaraz



**P**antailek gure eguneroko bizitzan hartu duten pisua azaldu beharrik ez dago. Bistakoa da, eta egunetik egunera handitzen doala ematen du. Makina bat ordu ematen ditugu pantailen aurrean: telebistari, ordenagailuari, tabletari eta, bereziki, telefonoari begira. Badago, noski, pantailen diktadura horri ihes egiten saiatzen denik, baina gaur egun gehientsuenok, gutxi asko, denbora dezente ematen dugu horiei begira.

Begiratzen ditugunean irudi asko ikusten dugu, noski, baina baita letrak eta audioak ere. Eta horiek, jakina, hizkuntza jakin batean etorriko zaizkigu, informazio horrek guztiak hizkuntzaren bitartekaritza behar baitu.

Eta zein da, gure gailu horietan, hizkuntza nagusia gaur egun? Bada, erantzuna erraza da: gaztelania. Euskara ere

iristen zaigu pantailetatik, noski, ingeles dezente ere bai ziur asko, baina gurean gaztelania da nagusi, alde handiz.

Gure arteko mezu trukean ari garenean bestelakoa izanen da egoera ziur asko, alegia, Whatsapp edo Telegram bidez elkarrekin ari garenean, edo posta elektronikoz elkarri mezuak bidaltzen, etxean edo kalean bezala euskara izanen da hizkuntza nagusia eta ohikoena.

Baina gure harreman sare hurbiletik atera orduko, eta batez ere hartzaila-funtzioa jokatzeko dugunean, orduan gaztelania gailentzen zaigu indar handiz: telebistako programazioa, serieak edo telesailak ikusteko erabiltzen diren plataforma digitalak, Youtube, Twitter eta Tik-Tok bezalako sare sozialak... Horietan denetan gaztelaniazko edukiak nagusitzen dira eta sekulako oldea osatzen dute, eus-

kara bezalako hizkuntza gutxituak oso bazter utzita.

Horrek, jakina, eragina dauka. Alegia, gure bizitzako hainbat eta hainbat ordu "gaztelaniaz bizitzen" ematen ditugu, eta gaztelaniak presentzia gero eta zabalagoa dauka gure egunerokoan. Ez zaigu horregatik ilea eroriko edo hortzak horituko, baina, bistan denez, gaztelaniak bereganatzen duen toki hori guztia euskarak galduko du. Eta pantaila aurrean ez gaudenean egiten dugun euskararen erabileran ere eragina izan dezake eta badu.

Pantailatan gertatzen ari zaigun horren adierazle argia da gure eskualdeko ikasketetan UEMAK egindako ikerketaxoa, aurten ezagutarazi dena. Ikerketa horrek argi asko erakusten du gaztelaniak pantailatan duen nagusitasuna. Honatx, la- gin gisa, datu horietako batzuk:

## Serieen hizkuntza:

Zein hizkuntzatan ikusten dituzte azkeneko telesaila edo marrazki biziduna galdetu zitzaizen Amazabal Institutuko ikasleei. Hauxe izan zen erantzuna:

Goizuetako eskolako ikasleei galdera bera eginda, hauxe erantzuna:

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez dut ikusten
% 13,8	% 63,9	% 10,3	% 1,7	% 10,3

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez dut ikusten
% 50,0	% 50,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0

## Youtube:

Eta zein hizkuntzatan ikusten dituzte, nagusiki, Youtubeko bideoak Institutuko ikasleek? Bada, jasotako erantzunen arabera:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
% 5,2	% 62,1	% 1,7	% 17,2	% 1,7	% 8,6	% 3,4

Xalto eskolako ikasleen erantzuna, berriz, honakoa:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
% 16,70	% 66,7	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 16,7	% 0,0

## TikTok:

TikTok sare sozialeko bideoak honela ikusten dituzte Amazabaleko ikasleek:

Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du TikTok erabiltzen
% 0,0	% 55,1	% 5,2	% 1,7	% 1,7	% 6,9	% 29,3

Egindako inkesta horrek datu gehiago jaso zituen, hau lagin bat besterik ez da izan, baina gainerako galderak aintzat hartuta ere (Twitch, Instagram, telebista, musika, bideo-jokoak...) ondorio nagusia argia da: gaztelania da nagusi, erabat, pantailen aurrean.

Haur eta gazte horiek guztiak euskaldunak dira, eta euskara da gehien-gehien hizkuntza nagusia etxean, kalean, lagunartean eta ikasketetan, baina pantaila aurrean jartzen direnean gauzak erabat aldatzen dira, eta hortik jasotzen dutena nagusiki gaztelaniazko edukia da.

Inkesta haur eta gazteen artean egin zen baina, zalantzarik gabe, ondorio berbera aterako genuke helduen artean egin da ere.

## ETA HORREN AURREAN, ZER?

Horixe da panorama, beraz, pantaila dagokionez. Euskararen ikuspuntutik kezkarria, argi dagoenez. Eta horren aurrean, zer? Bada, bi ideia, labur azalduta: alde

batetik, ahalegin handia egin beharko da, eta batzuk horretan ari dira dagoeneko, pantailen bitartez jasotzen dugun eskaintza horretan euskarari tokia egiteko.

Eta, bestetik, pantailak eskaintza dena delakoa izanda, gaur dugunarekin edo ahalegin handi horren bitartez lortuko dugunarekin, dagoen aukera baliatu eta dagoen hori ere bilatu eta erabili behar dugu. Alegia, ahalegina egin beharko dugu erdarazko eskaintzaren itsaso horren ondoan dagoen euskarazko eskaintza ere ezagutzen eta baliatzen.

Bi bide horiek bultzatzen ari da azkenaldian sortu den Pantailetan Euskaraz ekimena ([www.pantailakeuskaraz.eus](http://www.pantailakeuskaraz.eus)). Alde batetik, erakundeei eta bestelako eragileei edukia euskaraz sortu eta zabal ditzaten eskatzen die, horretarako proposamen zehatzak eginez: euskarazko ikus-entzunezko sektorea diruz laguntzea; Euskal Irrati Telebista indartzea eta euskararen normalizaziorako tresna bihurtzea; euskarazko streaming plataforma bat sortzea; streaming plataforma nagusietan euska-

raren presentzia handitzea eta bermatzea; zinemaren lege propioak sortzea; bideo-jokoetan euskararen erabilera bermatzea eta sustatzea; Espainiar eta Frantziar kate publikoek euskarazko edukia eskaintzea...

Eta, bestetik, dagoen eskaintza hori erakusten saiatzen da, euskaldunok ere balia dezagun. Eskaintza hori ezagutarazteko eta erabilgarri egiteko, esate baterako, ZER NON IKUSI atala sortu dute beren webgunean, eta bertatik eskuratu daitezke euskarazko hainbat eduki: filmak, telesailak, dokumentalak, haurrentzako edukia, euskaraz azpidatzitakoak, ikastetxeetarako edukia, plataformetako edukia (NETFLIX, Youtube, Filmin, HBOmax, ARGIA, Kanaldude, Vimeo...)... NON ZER IKUSI atal horretatik aise iritsi gaitzake euskarazko edukietara, eta dagoenez gozatu.

Pantailak espazio garrantzitsua osatzen dute gaur egun gure eguneroko bizitzan, ez dago zalantzarik, eta, horrenbestez, euskararentzat irabazi beharreko beste espazio bat dira. Dagoenetik hasita, eta gero eta toki gehiago eginez.

